


Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com


Edurne Lasa Amorebieta

*Elgoibar,
Gipuzkoa*

Aurkibidea



Biografia



Kortezubin jaio zen, baina, oso txikia zela, familia Elgoibarrera joan zen bizitzera. Ama Kortezubikoa zen eta aita Legorretakoa. Ikasketak gaztelaniaz egin zituen arren, euskaraz alfabetatu zen Bergarako UNEDen. Magisteritza ikasi eta Elgoibarko ikastolan hasi zen lanean, baina hainbat formakuntza egiten jarraitu zuen. Ume-umetatik izan zuen irudimen handia eta antzerkirako zaletasuna eta 1977an Taupada antzerki-taldea sortu zuen beste zenbait lagunekin batera. 40 urte baino gehiago daramatza euskarazko antzerkiak egiten. Elgoibarko euskararen historia soziala jasotzeko proiekturako egin zitzaion elkarriketa, Taupadako kidea duen Joxe Mari "Larra"rekin batera.

Zintak

EGB-120

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Elgoibarren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2022-07-05
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

EGB-122

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Elgoibarren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2022-07-05
- **Iraupena:** 50 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Ahuntzaren esnearekin hazitakoa da

- **Erref:** EGB-120/001
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:56

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Izen-abizenak. Aita Legorretakoa zuen eta ama Kortezubikoa. Ahuntzaren esnearekin hazitakoa dela kontatzen du.

2. Nieves esaten zioten baina Edurne zen

- **Erref:** EGB-120/003
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:04:13. **Bukatu:** 00:06:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Eskolan mojekin ibili zen. Aitak lantegi batean lan egiten zuenez, etxea alokatzeko aukera zeukan eta umeen kuotak ere lantegiak ordaintzen zituen. Cara al Sol abestu behar izaten zuten. Etxean euskaraz eta eskolan erdaraz egiten zuen. Eskolan Nieves izenez deitzen zioten. Hogeita hiru urterekin, paper ofizialetan Edurne izena jarri zuen.

3. Umetan irudimen handikoa; antzerkiak egiten lagunentzat

- **Erref:** EGB-120/004
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:06:05. **Bukatu:** 00:08:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Irudimen handikoa zen umetan. Osaba-izeba aktoreak zituen. Dantzatzea zen bere zaletasuna eta antzerki obrak egiten zituen etxeko atarian lagunentzat. Irratian entzundako nobeletako erreferentziak zituen.

4. Amaren aspaldiko kontuak

- **Erref:** EGB-120/006
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:10:32. **Bukatu:** 00:12:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa

Laburpena:

Gurasoek Gernikako bonbardaketa bizi izan zutenez, ordukoak kontatzen zizkien amak, baita aita zela ezagutu zuen ere.

5. Tropa frankisten sarreraren antzezpena

- **Erref:** EGB-120/007
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:12:18. **Bukatu:** 00:15:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

1936 taldekoen eskaerari erantzunez, Taupada taldekoek tropa frankisten sarrera irudikatzeko herritarrekin antzerkia egin zuten eta dokumentala grabatu.

6. Gerra ostean, beldur handia

- **Erref:** EGB-120/010
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:19:45. **Bukatu:** 00:20:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Mojetan euskaraz ezin zutela egin argi zeukaten. Beldur handia ezagutu du etxean. Aita kartzelan egon zen heriotza zigorrarekin.

7. Euskara galdu egin zuen

- **Erref:** EGB-120/011
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:20:44. **Bukatu:** 00:23:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Etxeko giroa euskalduna bazen ere, galdu egin zuten. Berak garai batean euskara galdu egin zuela dio. Aitak itsulapikoa jarri zuen, gazteleraz egiten zuenak txanpona bota zezan. Aitaren familiakoei ez zien ulertzen, Legorretako hizkeran egiten zutelako. Amaren esaerak gogoan ditu eta apuntatuta.

8. Baserritar euskaldunari materiala egokitu beharra

- **Erref:** EGB-120/014
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:27:37. **Bukatu:** 00:31:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eskolako lagunekin ibiltzen zen eta erdaraz egiten zuten elkarrekin. Pasarte bat kontatzen du, ikasle euskaldun baserritar bati froga psikologiko bat egokitu zionekoa. Euskara eta jakinduria aberatsagoa zuten baserritarrek.

9. Euskara ikasleen bidelagun

- **Erref:** EGB-120/015
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:31:38. **Bukatu:** 00:34:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ikasle andaluziar batekin izandako harremana kontatzen du; euskara ikasteko bidelagun nola izan zen bera.

10. Euskarazko D titulua ateratzeak ilusio handia

- **Erref:** EGB-120/018
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:37:14. **Bukatu:** 00:40:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Udako Euskal Unibertsitatean urte luzez eman ditu ikastaroak Larrarekin eta euskatzaile askorekin izan du harremana, tartean Txillardegiarekin. Euskarazko D titulua atera zuenean, ilusio handia izan zuen. Euskaraz zuzen idazteari garrantzia handia eman izan dio, baita antzerkian ere.

11. Titiriteroak ikustera

- **Erref:** EGB-120/021
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:44:04. **Bukatu:** 00:47:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Herrira etortzen ziren titiriteroak ikustera joaten zen. Kaleko antzerkiak ikusten zituen. Irudimen handikoa izan da.

12. Lurdes Iriondoren `Buruntza azpian´ antzezlanean

- **Erref:** EGB-120/022
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:47:33. **Bukatu:** 00:49:25

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>Lurdes Iriondoren `Buruntza azpian´ antzezlanean parte hartu zuen herrian. Aktore batzuen izenak ematen ditu. Neska mutuaren papera egiteko deitu zioten. Odeioan egin zuten.</p>

13. Lurdes Iriondorekin material pedagogikoa euskaratzen

- **Erref:** EGB-120/023
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:49:25. **Bukatu:** 00:50:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Lurdes Iriondoren antzerkian parte hartu ostean, harremana izan zuen Lurdesekin. Ikastolako musika irakaslea zen Reginarekin batera, Lurdes Iriondorekin euskaratu zuten musika pedagogiarako materiala.</p>

14. Taupada antzerki taldearen sorrera

- **Erref:** EGB-122/002
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:00:53. **Bukatu:** 00:05:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Taupada antzerki taldearen sorrera. Mari Ezenarrok laguntza eman zien. "Oihu gorrak" izan zen lehen obra.

15. Lehenengo obra, "Oihu gorrak"

- **Erref:** EGB-122/005
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:08:19. **Bukatu:** 00:12:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

"Oihu gorrak" obraren prestaketa zelakoa izan zen kontatzen dute: eszenografia, arropak... Edurnek josten ikasi zuen. Hasierako fokoak eta musika ekipoa zelakoak ziren kontatzen du Joxe Marik.

16. `Oihu gorrak´ obraren estreinaldi berezia

- **Erref:** EGB-122/008

- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:14:26. **Bukatu:** 00:18:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>`Oihu gorra´ estrenatu zutenekoa kontatzen dute. Txarridunanean txerrikumea erosi zuten eta zozketatu egin zuten. Txapela pasatu eta dirua batu zuten. Oso harrera ona izan zuten. Taupada Antzerki Taldeak bere ikusle taldea daukala dio. Joxe Marik azaltzen du `Oihu gorra´ estrenatu zutenean, lehenengo aldia zela antzezlan bat kalean horrela ematen zela.</p>

17. `Behin batean´ obra Odeioian

- **Erref:** EGB-122/010
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:19:50. **Bukatu:** 00:21:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>Herri gehienetan ez zegoen antzokirik; frontoiak eta egokitutako aretoak egoten ziren. Halakoetan ibili behar izaten zuten. Elgoibarren Odeioia zeukaten; `Behin batean´ antzezlan bertan estrenatu zuten, zuzeneko musikarekin. Odeioia itxi aurretik, `Behin batean´ antzezlan egin zuten, jabeak eskatuta.</p>

18. Bernardo Atxagak `Liliput´ obra idatzi zien

- **Erref:** EGB-122/011
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:21:57. **Bukatu:** 00:24:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Bernardo Atxagak `Liliput´ obra idatzi zuen Taupada antzerki taldearentzat. Estreinu zutenean, bertan izan zen Atxaga.</p>

19. Gidoiak eta eszenografia taldekideek moldatzen dute

- **Erref:** EGB-122/013
- **Iraupena:** 0:05:06. **Hasi:** 00:27:08. **Bukatu:** 00:32:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Obrak etengabe moldatzen joaten dira. Esteban Larrañagak egin zuen

lehenengo antzezlaneko gidoia. Oinarrizko gidoi bat egin eta moldatzen joaten ziren. Mikel Osorok idatzi zuen behin, Rodariren testuak moldatu izan dituzte... Lehenengo eszenografia sinplea zeukaten baina ondoren konplexuagoa egiten hasi ziren.

20. "Eta, etxekoak zer moduz?" obraren eszenografia

- **Erref:** EGB-122/014
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:32:14. **Bukatu:** 00:34:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

"Eta, etxekoak zer moduz?" obraren eszenografia konplexua azaltzen du. Audioa grabatu egin zuten orduan.

21. Euskaraz egitea arau

- **Erref:** EGB-122/019
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:40:54. **Bukatu:** 00:43:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Taupadan euskaraz egitea dute arau. Taldekide batek antzerki taldean berreskuratu du euskara. Emanaldi baten bukaeran eibartar batek "noski baietz" esan beharrean, "bai, noski" esateko gomendatu zien. Euskaraz hobeto egiten lagundu izan dio jendeak Edurneri eta eskertu egiten du.

22. Euskararekiko kontzientzia hartzea behar da

- **Erref:** EGB-122/021
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:45:37. **Bukatu:** 00:48:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskararen egoera Elgoibarren asko hobetu dela uste du Edurnek; aldi berean, azaltzen du kontzientzia hartzea falta dela, euskara bultzatzeko hainbeste lan egin beharrik ez izateko.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com